



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
📠 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

2014KO APIRILAREN 28KO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.
Batzarra: Ohiko bilera.
Deialdia: Lehenengoa.
Eguna: 2014.04.28.
Ordua: Arratsaldeko 19:00etan.
Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Jaime Iturria Mitxelena jn.
Zinegotziak:
Ander Almandotz Indakoetxea jn.
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.
Mikel Leiza Etxeberria jn.
Teodoro Pikabea Zubieta jn.
Jose Ignacio Madariaga Vergara jn.

Bertaratu ez direnak:

Koldobike Gorostiza Uriguen and.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

- 1.-Azkeneko aktaren onespena.
- 2.-Europako Parlamenturako hauteskundeetarako mahaikideen hautaketa.
- 3.-3.poligonoko 94. lur zatian kokatua dagoen borda lagatzeko onespena.
- 4.-2013ko kontuak: aldeko txostena.
- 5.-Alkatearen ebazpenak.
- 6.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.

2014ko apirilaren 15ean egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE.

2.-EUROPAKO PARLAMENTURAKO HAUTESKUNDEETARAKO MAHAIKIDEEN HAUTAKETA.

2014ko maiatzaren 25ean izanen diren Europako Parlamenturako hauteskundeak direla eta, mahaikideak hautatu behar dira.

Indarrean dagoen Hauteskunde Erregimen Orokorari buruzko Lege Organikoaren 26. artikuluan ezarritakoaren arabera, ondoren adierazten diren hautesleak izan dira izendatuak zehazten diren karguetarako:

-TITULARRAK:

-Mahaiburua: Daniel Iparraguirre Iturria jn.

- 1. Mahaikidea: Joxe Xabier Gonzalez Lukanbio jn.
- 2. Mahaikidea: Maria Coro Apecechea Aizpuru and.

-ORDEZKOAK:

- Mahaiburuaren 1. ordezkoa: Sonia Iturria Mitxelena and.
- Mahaiburuaren 2. ordezkoa: Gabina Goia Iparragirre and.
- 1. Mahaikidearen 1. ordezkoa: Ainara Aramburu Madariaga and.
- 1. Mahaikidearen 2. ordezkoa: Santiago Iparragirre Oscoz jn.
- 2. Mahaikidearen 1. ordezkoa: Gema Lucambio Gonzalez and.
- 2. Mahaikidearen 2. ordezkoa: Itxaro Etxague Goia and.

3.- 3.POLIGONOKO 94. LUR ZATIAN KOKATUA DAGOEN BORDA LAGATZEKO ONESPENA.

Mikel Larretxea Bergara jaunak 3.poligonoko 94. lur zatian kokatua dagoen borda moldatu eta erabiltzeko (ehiztarietzako txabola) eskaera aurkeztu du.

Kontuan hartuz lurra eta inguruko lurra komunala dela.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru legearen 140 artikulua eta ondorengoan eta Toki Entitateen Ondasunei buruzko 280/1990 Erreglamenduaren 143 artikulua eta ondorengoan arabera,

Aho batez, eta legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ERABAKI DUTE:

1)Hasiara batez onestea 3. poligonoko 94. lur zatian kokatua dagoen borda desafektatzea.

2)Aipatutako azaleraren erabileraren lagapena arautuko duen baldintza-agiria onestea, espedientean baitago.

3)Erabakia eta espedientea hilabetez jendaurrean edukitzea, iragarkia toki entitate honen iragarki oholean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondotik, epe horretan alegazio eta erreklamazioak aurkez daitezten.

4)Jendaurrean dagoen bitartean alegaziorik edo erreklamaziorik aurkezten ez badira, erabakia behin betikoa bilakatuko da, eta espedientea Nafarroako Gobernura igorriko da, onets dadin; beraz, Nafarroako Gobernuak desafektazioa onestean ezartzen dituen baldintzetara loturik egonen da.

4.-2013KO KONTUAK: ALDEKO TXOSTENA.

Ikusirik 2013ko ekitaldiko kontuen espedientea.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 305. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1)2013ko ekitaldiko kontuen espedienteari aldeko txostena ematea.

2)Espedientea jendaurrean jartzea hamabost egunez, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aitzina, interesdunek aztertu eta bidezko erreklamazioak egin ditzaten.

5.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du (2014ko 24. ebazpena).

6.-ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egin.



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
© 948 634 005
☎ 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

Gai zerrendatik kanpo eta, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaiak eztabaidatu dira:

7.- IGANTZIKO UDAL IGERILEKUA.

2014ko apirilaren 15ean egindako bileran, gai honi buruz, udalak erabaki zuen 1.000 euro ordaintzea Igantziko Udalari, Arantzako herritarrek Igantziko herritarrek ordaintzen duten prezio bera kobratzeko baldintza pean

Ondoren Igantziko Udalak hainbat proposamen desberdin egin ditu gai honi buruz.

Proposamen horiek aztertu ondoren eta kontuan hartuz Arantzako Udaleko egoera ekonomikoa,

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Aurreko akordioa berrestea eta 1.000 euro ordaintzea Igantziko Udalari, Arantzako herritarrek Igantziko herritarrek ordaintzen duten prezio bera kobratzeko baldintza pean.

8.- UDALAREN ORDEZKARIEN IZENDAPENA.

Koldobike Gorostiza Uriguen andrea Cederna-Garalur Elkarteko eta Bertizko Partzuergo Turistikoko ordezkaria izendatu zen. Halaber, Alkateordea zen. Berak hala eskatuta, karguak aldatu behar dira.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko ordezkaria Jaime Iturria Mitxelena izendatzea.
- 2) Bertizko Partzuergo Turistikoko ordezkaria Jaime Iturria Mitxelena jauna izendatzea.
- 3) Cederna-Garalur Elkarteko ordezkaria Ander Almandoz Indakoetxea jauna izendatzea.
- 4) Arantzako Udaleko alkateordea Ander Almandoz Indakoetxea jauna izendatzea.

Bertzerik gabe, gaueko 21:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,
Jaime Iturria Mitxelena jn.



